



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.
Imanol Baleztena Elizalde

2020eko apirilaren 30ean, 19:00etan, ohiko bilkuran elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

Bilera hasi aurretik, eta alarma egoeran egonda, beharrezkoa egiten da bileraren premia aitortzea, deialdian zehaztu den gai ordenarekin aurrera jarraitu ahal izateko. Udalburuak egoera azaldu eta bozkatzera deitu du:

Alde 6
Abstentzio 1

1.-Bilkurak, bileraren premia onartu eta bilkurarekin aurrera jarraitzea erabaki du.

1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Aurreko bilkurako aktak onartzea.

2. UE-C-KO URBANIZAZIO PROIEKTUA, XEHETASUN AZTERLANA, HIRIGINTZA HITZARMENA ETA BIRPARTZELAZIOA: BEHIN BETIKO ONESPENA.

UE-C unitatearen xehetasun azterlana, birpartzelazioa, urbanizazio proiektua eta hirigintza hitzarmena erakustaldi publikoan egon ondoren ez da alegaziorik aurkeztu (2019ko azaroaren 26an NAO-n eta “Diario de Noticias”en iragarri ondoren). Arkitekto aholkularien txostena kontuan hartuta (2020ko urtarrilaren 21ekoa) eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorritik, Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Alde 6

Abstentzio 1

1.- UE-C-ko urbanizazio proiektua, Xehetasun Azterlana, hirigintza hitzarmena eta birpartzelazioa behin betiko onartzea.

2.- Akordio hau NAO-n argitaratzea.

3.- Onetsi diren agirien kopia bat Nafarroako Gobernuari helaraztea.

4.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.

3. MAESTRAREN ETXEKO ALOKAIRUA: ESKAINTZA EKONOMIKOEN IREKIERA.

Udalburuak dagoen eskaintza bakarra ireki du, eta bertan Maestraren etxeke alokairuaren truke 200 euro eskaintzen dira. Kontratazio mahaiak eginiko akta kontuan harturik Beñat Etxekolonea Díez eskaintzaile bakarra izan da. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Beñat Etxekolonea Díez jaunari Maestraren etxeke alokairua esleitzea.

2.- Esleipenduna eta Udalaren artean, alokairua arautuko duen kontratua sinatzeko Alkatea ordezkari izendatzea.

3.- Akordioa esleipendunari jakinaraztea aipamen berezia eginez kontratua sinatzeko betebeharrari.

4. AIELETAKO ZAIN IRAULIAK.

Udalburuak, aurkeztu diren bi eskaintzak ireki ditu eta emaitzak hurrengoak izan dira:

Juan Luis Loyarte Santesteban 20 euro

Miguel Mindeguía Labayen 132 euro.

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Aieletako zain irauliak Miguel Mindeguía Labayen jaunari esleitzea 132 eurotan.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2.- Akordioa interesdunei helaraztea.

5. MENDI LANAK.

Udalburuak Egur loteen eta baso lanen esleipenak onartu zituzten ebazpenak aurkeztu ditu. Esleipendunak nortzuk izan diren eta zer zereginetarako azaldu ostean bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 12/2020 eta 13/2020 Ebazpenak berrestea.

6. KATASTRO BALORE ALDAKETEN ONESPENA.

Udalburuak landa aberastasuneko zerbitzuak egindako balio aldaketen berri eman du, eta balio aldaketa horiek onartu zituen ebazpenaren berri ere. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 14/2020 Ebazpena berrestea.

7. OSTATUAREN ALOKAIUAREN LUZAPENA.

Ikusita alarma egoera dela eta ostatuan jarduerarekin jarraitzeko ezintasuna egon dela, udalburuak ostatuari alokairua, alarma egoera irauten duen adina denbora luzatzea proposatu du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Ostatuako alokairuaren esleipendunei, alarma egoera bukatzen den momentutik, alarma egoera iraun duen adina denbora alokairua luzatzeko aukera ematea.”



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

8. 2019KO KONTUEN IXTEA.

2019ko kontuen espedientea aztertu ostean, Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, erabakitzen da:

Alde 6
Abstentzio 1

1. Aldeko txostena ematea 2019ko kontuei.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

9. MERKATARITZA TXIKIAREN INGURUKO HITZARMENA.

Udalburuak hitzarmena azaldu eta horrelako araubidea gure gorputz normatiboan onarturik izatearen legezko beharra dagoela jakitera eman du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1. Udalburuari Bilkuraren izenean hitzarmena sinatzeko baimena ematea.

2. Akordioa interesdunei helaraztea.

10. HILERRIKO ORDENANTZAK.

Udalburuak ordenantzak landuak daudela aipatu eta azkeneko bertsioa aurkeztu du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Hilerriko Ordenantzei hasierako onespina ematea.

2.- Hilerriko Ordenantzak hilabete batez erakustaldi publikoan jartzea, NAO-n argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

3.- Bandoa herrian hedatzea, kolunbarioak eskuratzeko interesa daukaten herritarrei izena emateko eskatuz, eskaera kopurua aurreikusteko helburuz.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

11. N-121 ERREPIDEAREN INGURUKO MOZIOA.

“MOZIOA:

NAFARROAKO GOBERNUARI ESKATZEN DIOGU NEURRIAK HARTZEA ETA BEHAR DIREN HITZARMENAK EGITEA N-121A ERREPIDEAN IRTEERA EDO HELMUGA EZ DUTEN MERKANTZIEN GARRAIOA BESTE ERREPIDE ALTERNATIBOETATIK JOATEKO, ERRIOXAKO ETA KATALUNIAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN IBILGAILU ASTUNEN PROPORTZIOA HANDIA DEN ERREPIDE NAZIOALETAN EGIN DUTEN BEZALA (N-232, N-11, N-240 ETA N-340).

ARGUMENTUAK

N-121A errepidetik eta tuneletik pasatzen den ibilgailu astunen kopurua oso handia da, horrek arrisku nabarmena eragiten du errepideko erabiltzaileentzat eta eskualdeko herritarrentzat.

Tunelak:

Segurtasun neurriak ez dira nahikoak. Almandoz eta Belateko tuneletan lanak egin diren arren, itxiera baino lehenago bezala, kamioi kopurua etengabe igotzen baldin badoa, tunel hauen arrisku maila handituko da.

Tuneletan egindako lanek apenas dute eraginik izan arrisku faktorerik handiena konpontzeko, ibilgailu astunek su hartzea, eta, hori gertatzekotan, bertan dauden pertsonen biziraupena bermatzea (egindako ekintzak ez dira *Gutxieneko segurtasunari buruzko 2004/54 Europako zuzentarauan* zehazten direnak, gobernuak interpretatzen duen bezala).

Suteek sortzen dituzten ke eta gas toxikoak ez badira tunel barrutik behar bezala eta azkar husten, bertan dauden pertsonak arrisku larrian egonen dira, ikusgarritasun faltagatik eta gasek laster batean asfixia eragiten dutelako, beraz, tunelak ahalik eta azkarren hustu behar dira.

Sua itzaltzeko zerbitzuen erantzun azkarrik gabe, 2 tuneletako egungo aireztapen sistema ez da gai ibilgailu astun bateko suteko gasak kanporatzeko, barruan dauden pertsonak kaltetuta atera gabe. Tunel hauek ez dute larrialdi irteerarik erabiltzaileak modu azkar eta seguruan bertatik ateratzeko.

2015ean Belate eta Almandozko tuneletako arrisku analisia egin zen eta zehaztu zen bi tunel hauek azkeneko kategorian sartzen zirela, hau da, **“arrisku handiko tunelak, ez**



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

dira segurutzat hartuko eta neurri osagarriak hartu beharko dira segurtasuna handitzeko eta zerbitzua ematen jarraitzeko”.

Analisiek, oraindik ere, emaitza okerragoak ematen ahal zituen zenbait aspektu astungarri kontuan hartu izan balira, adibidez, ibilgailu astunen suteen edo sute-hasieren maiztasuna, horrelako egoeretan erabiltzaileek hartu beharreko jokabideen berri ematen duten kanpainarik ez izatea, neguan merkantzia arriskutsuen garraioa inolako neurri gehigarririk gabe, edo eguneratutako larrialdi planik ez egotea.

Asko dira egunero tuneletatik pasatzen diren ibilgailu astunak (2.100 kamioi inguru 2014an), ondorioz suteak egon litezke. Análisi horietan sute arriskua gutxitzeko faktore nagusia epe motzean ibilgailu astunen trafikoa gutxitzea zela adierazi zuten.

Irteera edo helmuga N-121A errepidean ez duten ibilgailu astunen desbideratzearen ikerketa eginda (1200 kamioi inguru Nafarroako Gobernuaren estimazio baten arabera), ondorioztatzen da arrisku maila jaitsiko litzatekela, Almandozko tunelean maila onargarri batera eta Belateko tunelean maila onargarri batetik hurbil.

2016ko ekainean 31 udalek Nafarroako Gobernuari eskatu zioten presazko neurriak hartzeko probatuta dagoen arrisku maila jaisteko. Gobernuak ez zuen inolako neurririk hartu, nahiz eta analisi horiek ezagutu,.

Tuneletako arrisku maila hazi da. 2018an, ibilgailu astunen bolumena %50 igo da 2014tik; hau da, 2015ean egindako analisisian baino 1000 kamioi gehiago pasatzen ziren. Adierazle horrek, zalantzarik gabe, txosten horietan estimatzen den arrisku maila handitzen du.

2018ko martxoaren 5etik 9ra, egunero 9000 ibilgailu pasa ziren tuneletatik, horietatik ia 3500 ibilgailu astunak ziren, %40. Estimaten da ibilgailu astun horien %70, 2500 inguru, nazioarteko ibilbidea egiten dutela; hau da, N-121A errepideko eskualdean ez dute ez irteerarik ezta helmugarik ere.

Larrialdi zerbitzuen eraginkortasun eza eta arriskua. Hurbilen dagoen suhiltzaileen parkea (Ornoz-Mugairin) oso urruti dago tuneletan ibilgailu astun baten sutea itzaltzeko eraginkorra izateko eta ezbeharrean inplikaturik dauden pertsonak erreskatatzeko.

Eraginkortasuna ez da beharko litzatekeena; izan ere, erantzuna emateko denbora ez da egokia, lan hauetarako langileen formazioa ez da beharko litzatekeena eta dituzten ibilgailuak ere ez dira aproposenak.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Suteren bat baldin badago, Belateko Kontrol Zentroak ez du esku-hartzeko edo sua itzaltzeko gaitasunik.

Ondorioz, erabiltzaileak sutean inplikaturik ikusiko dira eta kanpoko laguntza teknikorik gabe, beraz, bere kabuz erabaki beharko dute zer egin babesteko.

Errepidea:

Tuneletan gertatzen den bezala, N-121A bi noranzko errepidea denez, istripuak gertatzeko probabilitatea handiagoa da, errepidea edo tunelak noranzko bakarrekoa denean baino; hau da noranzko bakarreko zirkulazioa eta zentzu baten eta bestearen artean bereizketa fisikoa duten errepideak (autopistak edo autobideak).

Istripu larrienak, portzentaje altu batean, N-121A bezalako bi noranzko dituzten errepideetan gertatzen dira, aurrez aurreko talkak egoten direlako. Istripu hauetako gertaerarik latzenak tartean ibilgailu astunak daudenean ematen dira.

Hori argi geratzen da N-121A errepidean.

10 hilabetetan (2017ko apiriletik 2018ko apirilera), 10 pertsona hil ziren, 12 zauritu larri eta beste hainbat arinago zauritu ziren. 10 heriotza horietatik 8tan (%80) aurrez aurreko talkak gertatu ziren eta hildakoak egon diren istripuen %70ean ibilgailu astunak egon dira tartean. Ibilgailu astun hauetako gidariak ere biktima izan dira: 2 hildako eta beste 4 larri zauritu.

Balantze honek, hala ere, ez du N-121A errepidearen egoeraren larritasuna erabat adierazten. Kontuan hartu behar dira artikulatutako ibilgailu astunek izandako beste 6 istripu larri aipatutako epearen azken 4 hilabeteetan: 3 kasutan artazia egin eta irauli dira ibilgailuak, beste 3 kasutan tuneleko ikusgarritasuna galdu zen Belateko tunelean kamioien turbo-motoreen matxurak eragindako kearengatik.

Epe berean, A-15 autobidean ez da inolako istripu hilgarririk gertatu eta ez da istripu adierazgarriarik egon. Kontuan hartu behar da zirkulazio bolumen handiagoa duela eta noranzko bakarreko errepidea dela, N-121A errepidetik paraleloan doa eta honen alternatiba da.

Ikerketa askok adierazten dute (RAC-Real Automóvil Club, AIPCR-Asociación Mundial de la Carretera, sustapen Ministerioa, Trafiko Zuzendaritza Orokorra eta abar) kamioiak bi noranzko dituzten errepideetatik, autobia edo autopistetara desbideratzea, hildakoen kopurua jaitsiko lukeela.

Arazo honi irtenbidea emateko adibide argi eta arrakastatsuak ere badaude, adibidez N-II-koa Gironan, N-121A errepideko arazo ia berberarekin. Administrazioei inolako koste ekonomikorik ez die suposatu, mugara doazen eta mugatik datozen kamioiak AP-7



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

autopistatik desbideratzen dituzte. Hildakoen kopurua asko jaitsi da. Bi urteko probaldian (2014-2016) heriotzak 15etik 3ra jaitsi dira.

Adibide hori ez da bakarra, beste zenbait ere badaude, esaterako, N-232 errepidea Errioxan, N-340 Tarragonan, N-240 Lleidan....

Historikoki Nafarroan hauek izan dira istripu hilgarri gehien izan dituzten errepideak: N-121A, N-111 (Iruñea-Tutera) eta N-232 (Tutera-Logroño). Gaur egun, Nafarroan heriotza gehien dagoen errepidea N-121A errepidea da, nahiz eta 66 kilometroko ibilbide motza duen eta hainbat hobekuntza egin diren.

Errepide honetan, azken 25 urteetan 180 heriotza baino gehiago egon dira eta kontaezinak dira zauritutako pertsonak. Bakarrik 1999an eta 2005ean gainditu zen 10 heriotzetako langa eta aurten ere gainditu da.

Bitartean historikoki hilgarriak izan diren errepideetan heriotza kopurua jaisten ari dira, baina N-121A errepideko heriotza kopurua gehiengo historikoetara bueltatu da.

A15 errepidea bikoiztuta dagoen errepidea da, gaitasun handiagoa du trafikoa hartzeko eta seguruagoa da. Europarekin garraio lotura egiteko diseinatu eta proiektatu zen. A-15 errepidean gero eta kamioi gutxiago ibiltzen da, 2002an egunero 2.500 kamioi ibiltzen ziren eta 2017an 1.400. N-121A errepidean, ordea, kamioi kopurua handitzen doa, 2002an egunero 950 kamioi ibiltzen ziren, gaur egun 3000 (A-15eko datuak Gorosmendi tunelekoak, eta N-121A errepidekoak Belateko tunelekoak).

Krisialdi ekonomikoak eta merkantzien garraioari A-15 eta AP-8an jarri zaizkion gain-kostuek zer ikusi handia dute azken urte hauetan ibilgailu astunek egin duten errepide aldaketan.

N-121A errepidea ibilgailu astunez gainezka dago eta honek errepidearen segurtasunari eta trafiko-jarioari ez dio inolako mesederik egiten. Kamioi gehienek nazioarteko garraioa egiten dute, eta horrek eskualdean eragin ekonomiko gutxi du (salbu, sektore oso konkretu batzuetan, esaterako gasolindegia). Eta eragin ekonomiko hori ez da inola ere konparagarria eta konpentsagarria segurtasun falta eta istripu kopurua handitzearekin.

A-15 errepideko bidesarien gain-kostua da nazioarteko garraioak N-121A errepidea aukeratzeko arrazoi nagusia. Ondorioz, Nafarroako Gobernuari dagokio behar diren neurriak hartzea eta behar diren hitzarmenak egitea N-121A errepideko istripu kopurua jaisteko.

2019 urtearen bukaeran izandako istripuan Azpilkuetako ama eta alaba bizia galdu bazuten, 2020 honetako hasiera ezin makurragoa izan da. Bi istripu berri non gure eskualdeko beste 3 lagun hilik suertatu dira. Bi istripuetan kamioen partehartzea gertatu da.”

Udalburuak mozioa aurkeztu du. Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Mozioa onartzea.**
- 2.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea.**

12. ESKAERAK.

12.1.- Herri Uratsek urtero bezala 2020an laguntza eskatu dio Zubietako Udalari. Eskaera irakurri ostean Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Urtero bezala 50 euroko diru laguntza ematea Herri Urratsi.**
- 2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.**

12.2.- Araba Euskaraz urtero bezala laguntza eskatu dio Zubietako Udalari. Eskaera irakurri ostean Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Diru laguntzarik ez ematea, Araban, ikastetxe publikoetan euskaraz ikasteko aukera baitago.

13. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak emandako Ebazpenen berri eman du (03/2020. Ebazpenetik 22/2020. Ebazpenera), eta Udalbatza **jakinaren gainean** geditu da.

Martxel Elizalde Elizalde zinegotzia sartu da bilkura aretoan 19:40ak direla.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

14. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandako sakabanatutako zuhaitzen aprobetxamendurako baimena; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandako erreketak baimenak –Zubietako Udala, Martín Legazcue Santesteban eta Pedro Santesteban Loyarte–; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandako landaketa baimena –Martín Legazcue Santesteban–; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari egindako oihan aprobetxamendu eskaerak – José Ramón Ochandorena Goñi, Juan Perochena Perochena, Jesús María Mutuberría Ibarra eta Tomás Ochandorena Fagoaga—; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari egindako oihan aprobetxamendu luzapen eskaera –José Ramón Ochandorena Goñi—; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandako oihan aprobetxamendu baimenak –José Tellechea Tellechea, Manuel Santesteban Loyarte, Mari Carmen Elizalde Elizalde, José Antonio Loyarte Mutuberría, Jesús María Mutuberría Ibarra, José Ramón Ochandorena Goñi eta Martín Legazcue Santesteban—; Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutoak egindako uraren azterketaren emaitzen jakinarazpena (parametroen barnean); Abeltzaintza Ustiatzearen Erregistroan izan diren altak- Maria Mercedes Santesteban—; Jabegoaren Erregistroak mugante garen heinean egindako jakinarazpenak; 2020ko egur loteak atera eta partitzeko lanen amaiera; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak emandako baimenak ur aprobetxamenduetarako- Maria Josefa Elizalde Michelena eta Josefa Loyarte Elizalde –; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak emandako baimenak polizi eremuan eraikitzeke - Elisabeth Etxekolonea Loyarte –; PDR-aren diru laguntza eskaeraren ukatzea, 37 punturekin; Nafar Gobernuak kultur eta ondare historikoko langileak Errotako ekomuseora egindako bisita eta bisitaren akta; Udalbiltzaren eskaera Zubietako inauteriak prestatzen ari diren gida turistikoan sartzeko.

15. ORKOIENGO UDALAREN ESKAERA: ERASO SEXISTEN GAITZESPENA.

Udalbatzak, 2568/1986 Errege Dekretuaren 97.3 artikulua arabera, gai hau sartu eta eztabaidatzeko onartu du **aho batez**.

Udalburuak Orkoiengo Udalak harturiko akordio baten berri eman du. Orkoiengo Udalak bidalitako idazkiaren atal batzuen transkripzioa hurrengoa da:

“Orkoiengo Udaleko talde politiko guztiek, gure herrian emakume baten aurka izan den indarkeria kasu berri abten aurrean,

Hau adierazten dugu:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa da, eta emakumeen oinarrizko askatasunei erasotzen die. Erasotze horiek gizonak emakumeen gainetik jartzen dituzten botere-harremanetan oinarritzen dira, eta emakumeak gizonetikiko mendatasun egoera bizitzea dute helburu, beldurrak sortuz.

Horregatik erabaki dugu:

Erasoa jasan duen emakumeari gure elkartsuna eta babesa adieraztea. Kalea, gaua, eguna pertsona guztien gozamenerako dira, eta emakumeek beldurrik gabe okupatzeko eskubidea dute. Ezerk ez du justifikatzen emakumeek bere askatasuna eta segurtasuna galtzea. Emakumeek beren harremanei, gorputzari eta sexualitateari buruz erabakitzeke duten eskubidea aldarriktzen dugu.

Sexu-eraso honen eta oro har gure gizartean gertatzen den edozein motatako eraso, indarkeria edo jarrera sexistaren aurkako gaitzespena berrestea. Horregatik, Berdintasun Politikak bultzatuz, lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, segurtasuna hobetzeko eta ingurune guztietan emakumeen askatasuna erabat gauzatzen dela bermatzeko.

Herritarrei eskatzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean axolagabe ez egoteko eta tolerantzia eta inpunitate zero jarrera izateko eraso matxisten aurrean erantzukizun indibidual eta kolektiboa hartuz.

Atxikitzea eta herritarrak animatzea arrazoi hori dela eta deitzen diren protesta eta arbuio ekitaldietan parte hartzea.”

Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez erabaki du:**

- 1.- Erasoa jasandako emakumeari elkartsuna adieraztea.**
- 2.- Orain arte bezala, Udaletik eraso hauek ekiditzeko lanean jarraitzea.**
- 3.- Akordioa Orkoiengo Udalarari jakinaraztea harturiko akordioarekin babesa erakusteko asmoz.**

16. GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 20:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.